

PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	BENTADES IKASTETXEA						Kodea: 014777	
ARLOA / IRAKASGAIA	NATUR ZIENTZIAK						DATA	2018-2019
MAILA	LH 5		LH 6					
1	ARLOAREN GUTXIENENKO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA							
<ul style="list-style-type: none"> - Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren osasun-ohitura eta norik bere burua zaintzeko ohiturekin bat eginez jokatzeko; giza gorputzaren aukerak eta mugak errespetatuz, eta banakoaren arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz. Osasuna gizabanakoaren eta komunitatearen ondasuna dela ulertaraztea da horren guztiaren helburua. - Gizakiak ingurunean egindako esku-hartzeen zenbait adierazpen aztertzea, eta horiek iraunkortasunaren parametroetatik kritikoki balioestea, betiere, eguneroko bizitzan oreka ekologikoa defendatzearen eta berreskuratzearen, eta kultura-ondarea zaintzearen aldeko jokabideak bultzatzeko. - Ingurune hurbileko elementu esanguratsuekin lotutako galdera eta arazoak identifikatu, pentsatu eta konpontzea, informazioa tratatzeko eta bilatzeko estrategiak erabiliz, hipotesiak adieraziz, eta horiek frogatuz, irtenbide alternatiboak aztertzeko eta ikaskuntza-prozesuari berari buruz hausnartzeko. - Zenbait material, substantzia eta objektu buruzko oinarritzko ezaugarrien ezaguera erabiltzea, eta ezagutza zientifiko-teknikoan aurrera egitea, alde aurretik erabakitako helburua duten proiektu, gailu eta tresna sinpleak planifikatu eta gauzatzeko. - Informazioa lortzeko eta ezagutza trukatzeko informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea; haien eragina aztertzea, eta pertsonen eta haien ingurunearen ezaugarriak hobetzeko ematen duen laguntza balioestea, zenbait giza behar asetzen laguntzeko. - Gatazkaren existentzia onartzea; ezberdintasunak gainditzeko mekanismo demokratiko gisa eta taldeen barne-aldaketarako faktore gisa erabiltzea, tratu txarrak eta jazarpenak eragozteko eta bizikidetzaren onuragarria lortzeko. 								



2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA LH 5		
	1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
	<ul style="list-style-type: none"> - Landareen erreinua - Landareen nutrizioa - Landareen ugalketa - Ekosistema kontzeptua - Ekosistemako harremanak - Elikagai kateak - Biosferako ekosistemak - Mehatxatutako ekosistemak - Izaki bizidunak errespetatzeko eta zaintzeko ohiturak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Erlazio funtzioa: nerbio sistema. - Neuronak - Osasuna eta higieena - Eguneroko ohiturak - Lehen sorospenak - Uraren erabilera arduratsua (araztegiak) 	<ul style="list-style-type: none"> - Materia kontzeptua - Materiaren aldaketak - Substantzia puruak eta nahasteak - Materialak - Indarrak eta haien efektuak - Energia - Makinak eta gailuak. Makina motak. - Zientzia, teknologia eta gizartea
2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA LH 6		
	1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
	<ul style="list-style-type: none"> - Bizidunak eta bizigabeak - Zelula - Izaki bizidunen sailkapena - Nutrizioa - Harreman funtzioa - Ugalketa 	<ul style="list-style-type: none"> - Mantenugaiak - Osasuna vs. gaixotasuna - Gaixotasunak prebenitzeko bizi ohitura osasungarriak. - Bizia hobetzeko aurrerapen zientifikoa. 	<ul style="list-style-type: none"> - Materia eta haren propietateak eta egoerak. - Aldaketa fisikoak eta kimikoak. - Erabilera arrunteko materialen propietateak. - Energia. Energiaren erabilera arduratsua. - Elektrizitatea. - Elektrizitatearen eraginak. - Zirkuitu elektrikoa. - Aurkikuntza eta asmakizun garrantzitsuak.



EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Gizakion portaerak ingurumenari era positibo edo negatiboan nola eragiten dion erakusten duten adibideak zehaztea, eta jarduera kaltegarrien zenbait efektu deskribatzea (kutsadura, baliabideak neurrigabeki erabiltzea), pertsonetan, animalietan, landareetan eta haien inguruan. Arazoak saihesteko eta murrizteko aukerak proposatzea eta naturaren babesaren aldeko jarrerak izatea.

- Giza gorputzaren bizi-funtzioetan parte hartzen duten organo garrantzitsuenak identifikatzea eta kokatzea, eta haien arteko interkonexioaz eta funtzionamenduaren eta zenbait osasun-ohituren arteko harremanaz jabetzea.
- Ohiko ikurrak eta eskala grafikoak erabiliz, plano eta mapak egitea, interpretatzea eta erabiltzea.
- Argiak, elektrizitateak, magnetismoak, beroak edo soinuak gorputzetan duten eragina aztertzeke ikerketa errazak planifikatzea eta egitea talde-lanean, eta emaitzak ezagutzera emateko erreminta egokiena hautatzea.
- Objektu eta tresnak egiteko proposatutako arazo bati erantzuna ematea, energia-iturri, eragile (mekaniko) eta material egokiak erabiliz, behar bezalako esku trebetasunez, eta banakako zein taldeko lana bateratuz.
- Egoera edo arazo errazei buruzko txosten bat aurkeztea euskarri digitalean eta paperean; hainbat iturritatik informazioa jasotzea (zuzenekoak, liburuak, Internet...); lan-plangintzari jarraitzea, eta ondorioak ateratzea.

KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK

EDUKIAK %60

- Probak eta azterketak

PROZEDURAK ETA JARRERAK %40

- Gelako lana: autonomia, antolaketa...
- Etxerako lana: ordena eta aurkezpena.
- Fitxak eta koadernoak: txukuntasuna, pautak...
- Ardura eta jarrera: bakarkakoa, irakasle eta ikasleekikoa.
- Txukuntasuna: bakoitzaren materiala, amankomuneko, mahaiak...
- Talde lana.